# Inés Alba


pies
caminar
las rutas, las caminatas de la historia
los sentidos!
el conocimiento del espacio es sinestésico

El tránsito, la vida, el caminar.

Los laberintos se convierten en un símbolo de ese tránsito, al caminarlos me recorro a mi misma. El recorrido nos recorre por dentro, nos re-conforma al mismo tiempo que lo recorremos. Le damos forma mientras nos dota de forma de manera recíproca. Por el camino, me encuentro objetos, personas, cosas que quiero cambiar, intervenir, cosas que quiero observar, silencios, encuentros y todo eso conforma el tránsito en su completitud. Estampación, collage, fotografía del objeto encontrado, dibujo digital... Esta búsqueda poética desde la gráfica, se convertirá pronto en un libro. Un libro sobre el caminar, sobre el recorrer, sobre el perderse y encontrarse. Tomará esa forma para poder continuar por otros recorridos después.

Iragatea, bizitza, ibiltzea.

Labirintoak iragate horren sinbolo bilakatzen dira; haietan nabilenean, neure buruan nabil. Ibilbidea barrutik dabilkigu; ibilbideak, hura egin ahala, osatu egiten gaitu. Forma ematen diogu eta, alderantziz, forma ematen digu. Bidetik, objektuak, pertsonak, aldatu nahi ditudan gauzak, esku hartzekoak, behatu nahi ditudanak, isiltasunak eta topaketak aurkitzen ditut, besteak beste, eta horrek guztiak iragatea osatzen dute, osotasunean. Aurkitutako objektuaren argazkia, estanpazioa, collagea, marrazki digitala... Grafikatik egiten den bilaketa poetiko hori liburu bilakatuko da laster. Ibiltzeari, ibilbidea egiteari, galtzeari eta nork bere burua aurkitzeari buruzko liburua. Forma hori hartuko du, ondoren beste ibilbide batzuetatik jarraitu ahal izateko.









Madrid, 1987

Ilustradora, artista y encuadernadora, mi búsqueda es comunicar por medio de imágenes. Me interesa la metáfora visual, las mezclas de materia, los contrastes. En 2020 terminé mis estudios de Ilustración en la Escuela de Arte de Zaragoza, ahora trabajo de manera freelance en diferentes proyectos artísticos (encuadernación artesanal, ilustración, autoeditando mis propios libros...). Estoy realizando una estancia en el Centro Huarte donde centro mi exploración artística en los laberintos, el tránsito, las herramientas para transitar la vida.

Madril, 1987

Ilustratzailea, artista eta koadernatzailea, nire xedea da irudien bidez komunikatzea. Metafora bisuala, materia-nahasketak eta kontrasteak interesatzen zaizkit. 2020an, Ilustrazioko ikasketak amaitu nituen Zaragozako Arte Eskolan. Egun, freelance ari naiz hainbat proiektu artistikotan (koadernatze artesanala, ilustrazioa...), eta nik neuk editatzen ditut nire liburuak. Egonaldia egiten ari naiz Uharte Zentroan, non ondoko hauetan zentratzen ari bainaiz esplorazio artistikoa: labirintoak, iragatea, bizitza iragateko tresnak.

Huarte

ARTE GARAIKIDEKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORÁNEO